





## IOI ELEKTROI METODOA INGURUNE AZIDOAN

$N^{+5} \rightarrow N^{+2}$  nitrogenoa erreduzitu egin da, oxidazio zenbakia txikitu da elektroiak irabazi dituelako.  
 Espezie oxidatzailea  $NO_3^-$   
 Substantzia oxidatzailea :  $HNO_3$

$I^- \rightarrow I_2^0$  iodoa oxidatu egin da, oxidazio zenbakia handitu da elektroiak galdu dituelako.  
 Espezie erreduktorea:  $I^-$   
 Substantzia erreduktorea :  $HI$



1.- **OXIDAZIO ZENBAKIAK JARRI** eta detektatu zeintzuk diren aldatu direnak.

2.- **IDENTIFIKATU** : **OXIDATZAILA** oxidazio zenbakia jaitsi da erreduzitu delako  $\rightarrow e^-$  irabazi ditu.

b) **ERREDUKTOREA** oxidazio zenbakia handitu da oxidatu delako  $\rightarrow e^-$  galdu ditu.

3.- **IDATZI OXIDAZIO ETA ERREDUKZIO ERDI ERREAKZIOAK**

SUBSTANTZIAK IONIZATUTA IDATZITA. (oxidoak, substantzia gaseosoak ( $H_2S(g)$ ) ez dira ionizatzen; **AZIDOAK** ( $H_2S(aq)$ ), **GATZAK**, **HIDROXIDOAK** disoziatzen dira **UR DISOLUZIOAN**).

**DOIKETA** Erdi erreakzio bakoitzean:

- Oxigenoak ez diren atomoak doitzen dira.
- OXIGENOAK DOITZEKO**, oxigeno kopuru gutxien dagoen lekuan beharrezkoak diren **UR MOLEKULAK**,  $H_2O$ , jartzen dira.  
**HIDROGENOAK DOITZEKO** Beste aldean **PROTOIAK** ( $H^+$ ) gehitzen dira, H kopuru berdina bi aldeetan lortzeko.
- KARGEN BALANTZEA** egingo dugu galdu edo irabazi diren elektroiak jakiteko. Bi erdi erreakzioetan galdu edo irabazi den  $e^-$  kopuruak berdina izan behar duenez (erdi erreakzio batetik beste batera  $e^-$  transferentzia gertatzen delako), beharrezkoa bada, erdi erreakzio bakoitza zenbaki batekin biderkatzen dugu,  $e^-$  kopurua berdintzeko.
- Erdi erreakzioen batura** egingo dugu **ERREAKZIO IONIKOA DOITUTA** lortzeko, eta posible bada **sinplifikazioak** egiten dira.
- ERREAKZIO MOLEKULAR DOITUTA** erreakzio ionikoaren lortutako koefizienteak hasierako erreakzio molekularrean (ionizatu gabe) jartzen ditugu eta **KONPROBATZEN** da doitu dagoen ala ez.

